

Otsailak 6. Emakumeen Genitalen Mutilazioaren aurkako Zero Tolerantziaren  
Nazioarteko Eguna

## 200 milioi neska eta emakume mutilatu dituzte mundu osoan

- Urtero hiru milioi neskari mutilatzen dizkiete genitalak.
- Gurutze Gorriak 2000. urteaz geroztik lan egin du praktika horren aurka Malin, bere esku-hartzea Ségou hirian oinarrituz.

Emakumeen genitalen mutilazioak emakumeen organo genitalak erabaki medikoekin inolako zerikusirik ez duten arrazoiengatik eraldatu edo kaltea eragiteko erabiltzen diren prozedura guztiak barne hartzen ditu. Emakumeen Genitalen Mutilazioa emakume eta nesken giza eskubideen urraketa gisa onartuta dago.

Praktika hori Afrika eta Ekialde Ertaineko 29 herrialdetan kontzentratzen da, baina arazo unibertsala da eta Asiako hainbat herrialdetan ere ohiko praktika da, adibidez Indian, Indonesian, Iraken eta Pakistanen, baita Latinoamerikako hainbat komunitate indigenen artean ere. Gainera, Mendebaldeko Europan, Ipar Amerikan, Australian eta Zeelanda Berrian bizi diren etorkinen artean ere praktikatzen da.

Bestalde, Gurutze Gorriak hemezortzi urtez Malin lan egin du, eszizioaren prebalentzia-indizerik handienetakoa duen herrialdea baita. Ablazioa jasan duten 14 urtetik beherako 44 milioi nesken artetik, ehuneko 73 Malikoak dira. Erakundeak hainbat proiektu garatu garai horretako hainbat eskualdetan, Maliko Gurutze Gorriarekin lankidetzan eta Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Espainiako Agentziaren (AECID) eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin, batez ere ablazioaren praktika prebenitzera eta nesken eta emakumeen sexu- eta ugalketa-eskubideak babestera bideratuz.

Azken bi urteetan, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin lankidetzan, **jarduera guztietan 21.700 neska eta emakumek baino gehiagok hartu dute parte**. Eszizioaren ondorioak jasan dituzten **82 emakume eta neska** identifikatu dira eta **tratamendu integrala** eskaini zaie, eta esku hartu den eremu osoan **eszisio-tasa % 3,6 murriztea lortu da**.

Beste alderdi garrantzitsu bat **prestakuntza** eskaintzea izan da: pertsonal sanitarioari, eszisiotik eratorritako konplikazioak identifikatu eta konplikazio horien aurrean asistentzia eskaintzeko; lider komunitario eta erlijiosoei, praktika horrek generoan oinarritutako indarkeria den heinean dituen ondorioei buruz; eta emakume-elkarteei, irakasleei, ikasleei, tokiko komunikabideei eta Malin dagoen Gurutze Gorriko pertsonal boluntarioari. **Prebentzio- eta sentsibilizazio-lana ere egin da informazio-jardueren bitartez, bertan 27.900 lagunek baino gehiagok parte hartuz**, multzo horretan lehendik aipatu ditugun emakume eta neskek barne hartuta.

### Garapen Jasangarriko Helburuak

Emakumeen genitalen mutilazioa haurtzaro eta nerabezaro arteko uneren batean egiten zaie neskei. Eta hemorragia larrien eta beste osasun-arazo batzuen (adibidez kisteak, infekzioak eta antzutasuna, eta konplikazioak erditzerakoan) kausa da, eta jaioberrien heriotza-arriskua handitzen du gainera.

Horregatik, Garapen Jasangarrirako 5. Helburuak (**genero-berdintasuna**) bere jomugan artean honako hau adierazten du: "Praktika kaltegarri guztiak ezabatzea, hala nola haur-ezkontza goiztiarra eta derrigortua, eta emakumeen genitalen mutilazioa".

Álvaro García Serrano  
Komunikazio Arduraduna

Arabako Gurutze Gorria  
Tfn. 945 22 22 22 luzapena 8 | 678 40 14 43 | [comunicacionalava@cruzroja.es](mailto:comunicacionalava@cruzroja.es)